

ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE
 Sociedad de Ciencias ARANZADI
 SAN SEBASTIAN
 Tomo XXIV. — 1971-1972. — Págs. 25-44

Notes sur le basque des Aldudes noms de maisons, mots et récits populaires

Par GEORGES LACOMBE

Allá por los años de 1944 a 1950 recorrió en varias ocasiones las diversas zonas de la comarca de Baigorry, Banca, Aldudes y Urepel. Conocedor de mis investigaciones en aquella región, M. Georges Lacombe, uno de los hombres que con más cariño, talento y competencia estudiaron la etnia y la lengua de los vascos, hizo llegar a mis manos unas notas relativas a palabras, cosas y relatos populares de Aldudes, extractadas de los apuntes que él mismo había tomado en aquel pueblo en los años 1911 y 1912. Yo esperaba publicarlas juntamente con el resultado de mis trabajos de Urepel; pero en vista del retraso en la preparación de mi estudio, me ha parecido que no debía demorar más la publicación del manuscrito de Lacombe.

(Nota de J. M. de B.)

Liste des maisons des Aldudes a la date du 12 août 1911

| | | |
|---------------|--------------|-----------|
| Agerrea | Alhastainea | Aochoa |
| Aïnestoinea | Alhastaborda | Aozkia |
| Alamantoindea | Antchuberri | Aozkjenea |
| Alesandroinea | Antonenea | Apatienea |

| | | |
|---------------------|--------------------|---------------------|
| Apestegia | Chotro | Haritzchiloa |
| Aramelea | Chotro-borda | Harretchea |
| Aramel-eihera | Coscarartea | Harribeltchea |
| Arrokia | Cozkorrea | Herrico-etcheberria |
| Asketa | Cozkorzoila | Iguzkiagerrebeherea |
| Attabala | Crechonenea | Iguzkiagerregaray |
| Andereordia | Crokenea | Ipharagarrea |
| Bachteroinea | Domingoinea | Iputcha |
| Ballea | Ehaileainea | Ithurribeltz |
| Barberainea | Ehailechuri | Ithurrieta |
| Barberchuri | Elgartera | Jaungorria |
| Barberchuribeherea | Elichaga | Jayme |
| Barnetchea | Elizabeherea | Joalgin |
| Baztanchuri | Enautenea | Joalgin-borda |
| Beherainea | Erdicoetchea | Joaneder |
| Beherainborda | Ernetenea | Joanesenea |
| Bernardoinea | Ernet eyhera | Joanesgazte |
| Bettineea | Erguy nea | Juan-angel |
| Bidartea | Erremedioinea | Juanenea |
| Bidartea | Erremedio-eyhera | Kirrifa |
| Bidondoa | Errientaina | Larraldea |
| Bordazahar | Errientainebeherea | Landart |
| Cascubenea | Erretorainea | Lechaca |
| Chabadinenea bis | Escolateizahar | Legarraldea |
| Chabañoinea bis | Espartinbeherea | Louisenea |
| Chabadingarai | Espartingaray | Maidertto |
| Chalosa | Etcheberria | Makurrea |
| Chatorra | Etchechuria | Manechenea |
| Chanchalan | Etchalecutto | Manech huna |
| Chantana | Etchemendia | Marco |
| Checalegarai | Ezkilenea | Markitcha |
| Checalebeherea | Ferranddobeherea | Martinenea |
| Chiloa | Ferranddogaray | Marttueña |
| Chimounenea | Gachtiacharrea | Marttincho |
| Chinta | Gordairua | Mateenea |
| Christu | Gordairugarai | Menddia |
| Chitxast-berri | Habagnoinea | Mendimenta |
| Chitxast-zahar | Hachketa | Menta |
| Chocha | Haltzart | Mentaberria |
| Chocoa | Harizbea | Migelenea |
| | Hariztegieta | |

| | | |
|---------------|----------------|---------------|
| Miel-artzain | Perkain | Quitteriainea |
| Miel-okhina | Perkain-chahar | Sabina |
| Mocholo | Perkain-zahar | Salaharria |
| Monlong-posta | Philipenea | Sarahandia |
| Munichta | Piarreinea | Sarohandia |
| Munichtagaray | Piarreñoinea | Saroiberria |
| Nachaburua | bis | Semeda |
| Noblea | Piarrechahar | Soldado |
| bis | Pilaria | Sorhochilo |
| Oihanburua | Plazaburua | Uhaldea |
| Oihanzelhai | Pochelu | Uhidea |
| Otharramunhoa | Poco | Urbelch |
| Otsanaitz | Predobelch | Urbidea |
| Pagozelhay | Predottipy | Urrutia |
| Patchicoinea | Premondo | Zarkindegia |
| Paulenea | Pritchia | Zinkoinea |
| | Puttun | |

DICTONS ET MOTS

Azantzak bota eta Perkainek itzuli jo za airetik pilotak hori

| | |
|--------------------|--------------|
| ablette | chipa |
| absinthe | achintchu |
| affamé | gose |
| aigle | arrano |
| aile | hegal, heal |
| ajonc | othe |
| aller | ban, juan |
| ange | aininguru |
| apporter | karri |
| araignée | lupu |
| (toile d')araignée | armiamansare |
| arriver | heldu |
| autre | berze |
| l'un l'autre | elgarr |
| avant-toit | |
| avent | abendo |
| avoir | ukhan |
| balai | zuzki, jats |
| bétier | ahari |
| bétail | kabala |
| gros-bétail | abere |

| | |
|--------------------|------------------------------|
| boeuf | abelgorri |
| chevaux | abelmutu |
| menu bétail | aziinda |
| moutons | aziindachuri |
| Cochons | aziinda beltz |
| bête | animale |
| betegros | |
| bécasse | pekada |
| beurre | burra |
| bien | |
| blanc | churi, zuri |
| blé | ogi |
| boeuf | idi |
| boire | edan |
| bon | hun |
| bouche | aho |
| bourbier | lohitegi, baltsa |
| bouvillon | ergi |
| brebis | ardi |
| brochet | brochet |
| brouillard | lanho |
| brousailles | berro |
| bruine | lantchurda |
| bruyère | lare |
| buis | ezpel |
| buse | buzoka |
| campagne | kanpaina |
| canard | ahate |
| capable | ahal |
| capricorne | |
| carré (d'en champ) | |
| cave | |
| cerf-volant | kakamarls |
| champ | alhorr, landa |
| champignon | onddo, chicha |
| chat | gatu |
| chauve-souris | gauinhara |
| chaux | kisu |
| cheval | zamari |
| cheval-enjenés | zaldi |
| à cheval | zaldiz |
| cheveu | bilho, ilhe |
| chien | chakhurr, zakhurr, cha-kurra |

| | |
|------------------|--|
| chièn de berger | artzainhora, artzain zakurr (burkua, gros-chien) |
| chemise d'homme | athorr |
| chemise de femme | mantharr |
| chouette | gaubele |
| cidre | saarno |
| ciel | zeru |
| cigale | larrauti |
| clef | gakho |
| cochon | cherri, zerri, urde |
| coeur | bihotz |
| corbeau | bele |
| corneille | belatcha |
| couteau | kaniit, ganiet |
| rasoir | bizar naal bat |
| crainte | beldur, lotsa |
| crantif | beldur, lotsa |
| crapaud | aphotzarr |
| cuiller | kullerra, salhi |
| désireux | nahi |
| devoir | beharr |
| Dieu | Jinko |
| dire | erran |
| doigt | eri, erhi |
| donner | eman, man |
| eau | hur |
| égal | bardin |
| église | eliza |
| enfant | haurr |
| ennuyer | akhitu |
| éperver | flakoin |
| épine | elhorri |
| escargot | kaakoil |
| étincelle | phindarr |
| vin | ano |
| être | izan, eon |
| faim | gose |
| faire | egin, ein |
| faire faire | urrich, eme |
| femelle | mazteki, mazti, mazte, |
| femme | andria (fléchi) |

| | |
|---------------|--|
| fer | burdin |
| fête | besta |
| feuille | osto |
| fièvre | sukharr |
| fontaine | ithurri |
| fleur | lore, lili |
| fort | azkarr, indartsu |
| fou | erho |
| fougère | iatze |
| fraise | mahuri |
| frapper | jo |
| frelon | leizorr |
| front | kopeta |
| fruit | fruitu |
| fruits | fruitiak, fruitüak |
| fumée | khe |
| fuseau | ardatz |
| gelée | hormate |
| gelée blanche | hormate |
| genêt | othe |
| poire | udare |
| pêche | meršika |
| papillon | jinkuainollo, atchalilia |
| pomme | saarr(a) |
| glace | horma |
| neige | elhur |
| pluie | euri |
| écume | haun |
| goutte | sorta |
| vent | aize |
| air | aire |
| étoile | izar |
| ombre | itzal |
| rayon | arrayo |
| lumière | argi |
| monde | mundu |
| temps | denbora |
| enfer | ifernu |
| paradis | paraizu |
| âme | arima |
| foudre | aire gašto |
| tonnerre | irurziri (Josepa), ihurziri, ihurzuri (Jeanne) |

| | |
|---------------------|---|
| éclair | šimišta (id.), šišmišta, šimišta |
| lune | ilargi (id.), ilhargi, ilargi (Jeanne) |
| soleil | iruzki (id.), iuzki |
| esprit | izpiritu |
| diable | deurru, debru |
| arbre | arbola (Josepa), arbola |
| rosée | ihitz |
| pierre | harri |
| flamme | gar |
| fumé | khe |
| charbon | ikhatz |
| cendre | hauts |
| terre | lur |
| mer | itsaso |
| île | isla |
| rivière | hur handi |
| serpent (le petit) | subebandil |
| chambre | ganbara (Jeanne) |
| suivre | segi (Jeanne) |
| chef | chefa |
| maître de la maison | etcheain jabia |
| dent | etcheko nausia |
| accroupi | horz |
| lapin | hain(a) |
| lievre | lithaina (J.) |
| lire | kokoriko |
| pays basque | lapina |
| cerise | erbi |
| charrue | leitu |
| fourmi | eskual-herri |
| français | gehezi (J.) |
| espagnol | golde naarra |
| jumeaux | chinhorri |
| plafond | frantsesa |
| plancher | española |
| fletir | biak batekuak (Jeanne) |
| veste | plafuna |
| Sejetan hogoi | thaula |
| | šišta (Iriart) |
| | malipusa |
| | six cents |

| | |
|--|-----------------------|
| Zazpietan hogoi mutsurdingua (Iriart) | sept cents |
| forkatzen ari, | en train de se fonder |
| menepresatu | |

TEXTES

(Historiettes, contes, devinettes)

(Narrateur: Chilo: Novembre 1912)

I. Senhar-emazte batzuek elgarrekin arras bizi tšarra zuten. Gizonak joka andria šehatzen zün eta andria ezin bizi gehiao auzoko hiru emazte destimenio harturik galdein zün senharra juyeain gana. Juyiak lehenbiko destimenuari galdetzen dako: "Gizon hunek eta andre hunek bizi tšarra dutea elgarrekin?" Andriak errepresa: "Bai iauna, arras tšarra ute". Joiten dia gizonak andre hori?". "Bai jauna, ba" errepresa. "Ikusi duzia joka dabilala;" "Ez jauna: eztut ikusi, bainan baakit joten düla". Juyiak: "Ezpaduzu ikusi, zaza jartzera". Bigarrenari gauza bera galdetzen dio, eta: "Ikusi duzia joiten?". "Ez Jauna, ezdut ikusi, bainan badakit joten dila". "Ezpadugu ikusi, zaza jarzera". Hirugarrena. Juyiak: "Zu bederen adin puskaat baituzu, erradazu egia!". "Ba, jauna, ba, errain dauzut". "Gizon hunek eta andre hunek bizi tšarra utea elgarren artian?". "Baiauna, ba, arras tšarra". "Joiten dia andria?". "Ba, jauna, ba", Ikusi duzia? "Eztut ikusi, bainan badakit iten düla". Juyiak : "Zaza jartzera". Emaztiak itzuli jarzera baiteko eta alimaleko uzker bat eiten du. Juya koleran jekitzen da. "Zer ein duzu?" emaztiari. Ezta hau uzker eiteko lekhua. Izain duzu zure gaztiguya". Emaztiak: "Eztut nik ein". Juyiak: "Ba, zuk ein duzu". Emaztiak: "Ez jauna". "Ikusi uzia?" emaztiak juyari. "Eztut ikusi, bainan zuk eina da". Eskiaz erakutziz "Jauna, zaza zure kaderara jartzera.

II. Californian neskatu at nahi zuten andretako hiru muthikok: bat negozianta zen, berzia bolanjerra, berzia mariñela, eta baiten baitziren hiruak batian orobat neskatoain elhakatzera, eta neskatuak hiruak han tzirelaik erraiten dee: "Tšaurte hirur egunen burian; eta zoinek ee baitituzie eskiak ederrenik, hora hartiko ut". Mariñela kapitainak biharumanian ezautu zün arras triste: "Zer duk muthikua hola? hi triste hiz". "Bajauna: ezta egia erraitia bezalakoik: hiru muthikok desiratzen duu hulako neskatura, eta barda erran dauku zoinek ee bi eunen burian es-

kiak ederrao baititu, hora hartiko düla senhartako. Eta nik eztut lanjerrrik! Bolanjerrak eta negoziantak ene aldian esku ederra tuzte (bida baitziren!)". Kapitainak: "Au chilik: nik errain daniat zer egin: emak sakela atian urhia, berzian zilharra: uzkik bere aldiain eitera berziak; hiria jiten delaik, harzak sakeletaik urhia eta zilharra, eta hietako izain duk neskatua. Segur izan hadi hola eiten bauk.

III. Senar-emazte gaztiak ezkontzian, gizonak hoitahamabi urthe, andriak hogoi eta hamar. Jinkozko ezkontza. Laborantšan lanian untsa ri. Goizetan gozik jeikitzen, goizari baitago lana. Andriak gizonak behiak molde orduko askari ttipia prest, Gero biak lanian gogotik. Goizetik arrats Jinkuaren ganik zer sariak! Laborariak etsai anhitz badu, salbu hureko arraina, berziak denak kontra; behar du pazientzia.

IV. Senhar-emazte aferrak, etchian ardura miseria: laniik eztuim gizonak eta emaztiak bethi aferkeria goguan, lanain ihesi tripa ezin ase eman guziak harzen, tripa lezia baita. Haurrez bethiak badira untsa dira: goizetan sukhaličen haur marraka franko, aitetama jeikitzeak balin badira. Zer manera! Ama jeiki ta has tadiela batari eta berziari oihuka eta joka. Eztute haurrek deusere beharragorik. Gizonari gustatzen merkhatia, ostaria, jan (h)unak, edari hunak, berant erretiratzia. Othe da holakoik? Gutiaogo eta hobeago. Andriari gauza gochuak gocho familiain, akhitzen delakotz, bardiaiñ atšikitzeko arno šorta atzu. Auerdinta nahiago. Halakuaren lanak bethi hasita zer familiaren airia!

V. Ahazparrengó kontseilia meriatik athera eta hiru jaunek hitz-hartu dute behar dutela jostatu, irri ein. Bethi neskato atek Marik *bazuen* kostuma (ohi zen!) leihotik beha egotekoak: etzen bere bai-tharik, bainan bisaia itsusia ziin. Jaunek haren bištara (edo parrera) direlarik, erran dakote: "Eihara zainak badi(r)a bi *egun* (?) etše hun-tan". Neskatoak erreposta: "Ba, dudarik gabe badira. Hirur asto bor-than dira.

VI. Senhar-emazte zahar batzu baratzian bazuten mertšika bat bethia, eta arrats guziez aldizka gau guzia leihotik guardian. Gero, muthiko gaztek jakin nola egoten ziren gau guzia guardian, behautela jostatu heen afaiteko denboran: gizona bezala eginik mamuat mertšikain gainian ezarri dute. Arratsian eskaleretan pasatuik eta khorda bat han kanpoko alderat berek. Etšeko andria juan da leihora eta kusi du meršikan gi-zona: ban da gizonain senharraian abisatzena, hartu harma, tiro egin dio. Muthiko khorda thiratu eta mamua botatu ute lurreat. Andriak argia,

gizona gibeletik badoazi mamu hilaren ikhustera: khordaz thiratzen baitzuten khampaot, mamua higitzen zen. Elgarri: "bizi un. Egur batzu han berian baitziren idorzen suko, baño hartu gizonak eta hasten zaiko mamuai: "Ago, ago! orain suketatiko ut!" Gero ezagutu zuen etzela gizona, mamua zuela, eta han tzien muthiko gaztiak ederki jostatu ziren.

VII. Konkor batek eta okherrak bide batian elgar errekontratu zuten; okeherrak konkorrai: "Egun gozik hua askariekin" Konkorra errepusta: "Ba, dudaik gae goiza duk: ene auzuau eztuk leihoa bat bezik idekirik".

VIII. Behin Alduden urthe aunhitzez etšeko nausiak neskato atšiki unduan beraekin esposatu zen; ustez ezkontza huna egiten zuen eta arnoko biziua zuena suertatu zitzaitzkon. Arras batez, gizona kanpotik jin eta harrapatu zuen behiteian eroria ezin šutituzko negurrian. Gizona burutik juana bezala. "Hau manera! hau manera! hau manera!". Andriak errepostu: "Manera tšar bat tuk ba". Gero hora andria untsa baitzen.

IX. Apheza ari zen egun batez haurrer katichimaren egiten. Galdetzen dio haur ttiki bat: "Zenbat Jinko dira?". Haurrak erreposturik ez. Gibelekoaldian bazen handiagoat irriz zagola, eta aphezak: "Hi irriz hago: badakik zenbat Jinko diren!" Errepostua: "Ba, jauna, ba.—Aphezak: zenbat dira?— "Hiru jauna". "Nun dira?". "Bat Frantzian, berze bat Espaiñian, bertzia aitak badaki".

X. (Sausarrian gerthatu den ištoria berrogeita hamabi urthetan). Buhami batzu heldu ziren Saussarira, eta bat haur-minekin etzateko galdeiin ziin iratze puska at eta etziin ukhan. Emaztia ezin egon gehiago juan tzen urrunšagoño harpe batetara. Harpera heltzian haurra espekatu zitzakon eta burian harri heinoatek buria pušiñoat šilhatu. Eta haurra (sorthuzen) hartzeta eta emaztia jin tzen gibelet eta galdeiin zün berritz iratzea etzateko eta haurrari eman zioten batheia. Jende arraza fierra buhamia.

XI. (Aützberrin gerthatia).

Aphezak ebiakoitz batez egin zituen ardi tripotak, eta denbora hotza baitzen arratsian juan tzen apheza auzoko etšera. Deskantsuan gauherdi ondoraino han egon tzen, eta gaztek hauteman zutelarik zerbitzaria ohera juana zela salda ebasti zuten. Igande goizian mezara jendia elizan sarthuia, apheza sankristiatik meza emaiteko arropekin harrionduat eskan juaiten da predikaria. Jende guzia harrituya zer in behar ziin. Aphe-

zak erraiten du: "Barda neri tripotak ebatsi baitazkidate; hura ebatsi duena eliza huntan da. Ifernuko zolan dago (harria han beitzin, harria goitiutu ziin). Haren buruaren gainera duha". Eta andre batek athearen ondotik: "Kontu, Jose, kontu!". Aitzinetik eliza erdia barna Jose laster eta laster athea kampoa.

XII. (Hurepelen gerthatia)

Aphezak galdetzen dako haur bat: "zoin da Jinkoain ondotik gizonik handiena?". Haurrak errepotua: "Martin Frantšis, jauna".

XIII. Gizon batek: "Aitak eta amak, haurrak, zer jaten dute gizonian askaitan?". "Chokolotia". —Eta zük— Guk untzia milika.

XIV. (Larraldek khondatu iſtoriua).

Seminario batian, iſtudiantak gosiak zauden eta ikhusi zuten oindoko etšian ſerri bat aphaindu eta idorzen dilindan zaula, elgarren artian ihardoki zuten ebaſi behardiau. Ebatsi zuten. Biharamun goizian opiniona ſuſen egunik poliza han tzen seminariuan. Iſtudiantak harrituak galduak zirela. Batek: "Zauta iſilik, egin dezaun hola: fite, komoitatera sotanak jauz dezoon!" Šapel bat burian ezarri zuten. Poliza azkenean heldu zen harara. Athia ideki ziin, ſapela erauntzi eta erran zion "Pardon, Monsieur" ſerriari. Eta iſtudiantak libre.

XV. "Eznausu Nobliaikion gerthatu iſtoriua).

Arras batez etšeko andriak senharrari eta muthilari esne boska eman zeen arthro minduekin: ſerrien bertzera botatu zuten jastatu ta. Etšeko anderiak biharamun goizian arthro boskak handik bildu eta berriz eman zezteen, orduan jan ziuzten. Etšeko andriak: "To! barda ez hunez botaiak, orai ederki prootſatu tuzu!".

XVI. (Narrateur: Kirripa). 6 nov. 1913.

Gizon bat eurketa juan tzen zaldiaikin oihaneat; gero zaldia kargatu eurrez eta zaldia abiatu zitzaikon bide makhurrekotik. Eta gero zaldiai erran zakon: "Hik hortik nahi bauk etſeat juan, ni berze bide huntaih nahuka zoin lehen etſeat?" Eta gero gizona etſeat juan zelaik zaldia oono etſeat ez ezaun. Gero mazteai erran zakon zaldia hea etzen etſeat jin. Maztiak ezetz, etzela jin. Eta ordian gizonak: "Biba! biba! iraazi inat". Gero zaldia ez ezaun eta abiatu zen zaldiain bilha. Eta bidian atſeman ziin zaldia borz otsok jaten ai zutela. Eta gero hasi zitzeen: "Potš, potš, potš" eiten zeela. Eta gero hek berriz ihesi. Ta gero gizona itzuli zen etſeat. Erraiten dako andrei: "Gure zamaria

borz kume (1) einik diaun; eztine etšeat heldu nahi: zaldare puška at behainat eta behar bada zaldarerat bilduko tun”. Gero hura zaldariaekin, juan eta pottokuak berriz ihesi urrunao, otsuak baitziren.

XVII. Narrateur: Airé. 8 nov. 1913.

Maztiak erran zakon senharrai: “Eman behar dirak olatain saria aphezaindako”. Senharrok etzakon erresponditu. Gero berriz erran zakon: “Eztuk aitzen? Eman behar dirak olatain Saria; egun arimen eguna diagu”. Gero senharrok erran zakon: “Ereman zan talo at”. Maztiak erran zakon: “Eztiat eremain taloa”. Senharrok erran zakon Errebeseneko arimak taluan usatiak zaudela.

XVIII. Narrateur: Airé. Baigorri gerthatia.

Hango senhar-emazte batzu samurtu ziren cbiakoitz atsalde atez. Gero etzakon solasik eman gizonak atsalde hartan bate. Gero atsian oheat ban zen gizona: gero ezarri ziin taula at oheain erdian. Bera jarri zen zokoko aldian senharra; gero maztia jin zelaik etzatera erran zakon: “Ze zarri uk hau hemen?”, Senharrok erran zakon: “Beo hori hor!”, Gero gauerditik oren erdiko aire hartan gizon orrek ein ziin urzintza at. Gero maztiak erran zakon: “Doministikun”. Erran zakon ordian gizonak: “Bihotzetik erten daazia, Maattipi?”, “Ba, ba! maztiak erran zakon: bihotzaren erdi erditik”. Ordian senharrok erran zakon: “Ken bedi taula hori hortik uai”.

XIX. Mari Airé. Heugin gerthatia.

Hango patroina Sankil da. Gero besta goizian hasi zen apeza predikatzen. Eta herriari ein zakon apezak predikatzian “Sankil gure patroia zeruan Jaungoikuak saristatua santu handia. Jangoikuak berak egina”. Gero gizon zahar batek galeri zoko batetik erran zakon: “Gezur demoniua oiše! Martikoeneko gaztena-zuhil batetik Juanes Baigorriarrak eina zen”.

XX. Bi gizon edaten ai zien. Gero ein zakon batek bertziali: “Naúka zeinek gezurra handiao pentsa!”, Bertziak erran zakon baietz. Erran zakon: “Errak hik lehenik”. Bertziak: “Ez, hik errak”. Erran zakon: “Nik ikusi iat itsasu erretzen eta arrainak biziik gelditzen”. Bertziak erran zakon: “Nik handiana errain diat: nik kusi iat mundu hau bezain handiko ogi at erreik daola”. Bertziak erran zakon: “Haatík handiao zian hura erre ziin labiak”.

(1) Edo pottoko.

XXI. Landibarreko eliza besta. Goiz batez abiatu zen gizon bat auzo herri batetik eliza bestara goizian goizik jeikiik, biziki kontent, arropa berriak soinian, eta hoitahamar libera sakelan. Etsetik abiatu ta berehala egin zakon šori batek: "Noat, noat?". "O O, Landibarreko eliza bestaat". Handik aitzina juan eta egin zakon berze šori batek: "kontentz". Erran zakon gizonak: "Aise nuk kontent arropa berriak soinian eta hooi eta hamar libera sakelan". Juan tzen Landibarreat, pasatu zitiin hirur egun bestan. Hooita hamar liberak jokuan galdu. Hirugarren atsian heldu zen etšeat triste: etšera hurrandu zenian egin zakon harzilo batetik apho atek: "Tut! Tut!". "Ba, ba! dena galdu tiat!".

XXII. Herri batian jaun batek baziin *jauregi bat ederra*, Jauregaien peko aldian eihera pentze eder batekin. Bazitiin huntasun handiak lurretan, hirur edo lau herritan arrandatzu bazitiin bankotan huntasun handiak intresian. Gero maztia hil zitzakon; gelditu zen bakharrik Etxiin haurrik berak, iloba neskatoñaot karri ziin bereanat. Ura karri eta denbora laurrik barnian gizona eritu zen; eritu eta berehala mututu. Ban tzen iloba neskautua bere oseba mututu eta izitu ta eiherazaineana. Erran zakon: "Sauri fite, eiherazaina! Oseba mututu zait". Juan tzen eiherazaina, harrapatzentz du pausatzen ai zela gizona. Hil tzen behala. Neskautua niarrez hasten da: "Eni bere huntasunak ein gogo zauzkitan: hauše da lana!". Eiherazainak erten dako, "zarriko dugu zure oseba ohazpian". Mihisi batez ingurinatu ta zartzen dute ohazpian jaun hura. Gero eiherazaina jartzen da ofian hilaren plazan. Erten dako neskato hari: "Karzue notaria. Nik zautuko dauzkizut haren untasun guziak". Gero karri zuten notaria. Notariak egin zakon: "Ebian jaunaa, nola zira?". "A a jauna, hil hurran, hil hurran!" "zure iloba huni zautu nahi dakozu(n) deusik?". Eriak: "Bai jauna, zautzen". "Zure kanpañetako lur horriak guziak?", "Bai iauna". "Eta bankotako huntasun horiek?". "Bai iauna". "Jauregi eder hau zautzen dakozu hau ere?". Bai iauna". "Eta eihera hau bere pentze eder horrekin?". "Hori ez jauna, hori eiherazainaindako". Ilobak egin zakon: "Ze erran duzu ori, oseba?". "Nauna batee gabe?".

XXIII. 10 nov. 13. Ostatia maite diin gizon bat.

Juaiten zen beant ostattutik. Maztiak erreportsatzen ziin zeendako hain beant juaiten tzen. Erran zakon berriz: "Hoin beant jiten bahiz eztauiat borthaik idekiko". Gero hurran aldian juan zitzaikon beantago. Bortha jo zakon, Maztiak: "Eztiat idekiko, Ago kanpuan". Gizonak erran zakon, baitzen putzu bat borthain unduan, bere buria harta at botatuko ziila. Maztiak erraiten dako: "Bota zak nahi bauk". Baitzen

borthain unduan trunko handi bat, hura harzen du besotan, eta botatzen du putzu hartaat. Ordian jartzen da gizon hori bortain sahetsian, maztia bortha ideki eta atheratzen da kampoat uste baitzin bere buria botatu ziila putzu hartaat. Bortha ideki orduko maztia kanpoat athera orduko gizona sarzen da barneat eta borta zerratzen dako: "Uai ni eonen nun barnian eta hi eonen hiz kanpoan nik nahi duan artio!".

XXIV. Itsasuko eliza besta bezpera batez egin ziin erauntsi tulumio itsusi bat aize handi batekin. Elizako leihuak aiziak hautsi zitiin, hango patroina botatu ziin aldare aitzinera, porroskatu zen ielsuzkoa baitzen. Atheratu zelaik denbora, juan tzen elizako serora biharamuneko elizaren aphaintzera. Sarthu zelarik elizan kusi ziin patroina aldare aitzinerat eroriik porroskatia. Juan tzen serora jaun erretorari erraiterat, nola botatu zuen aize handi horrek herriko patroina. Jaun erretorar juan tzen serorarekin elizarat eta erran zakon serorari: "Hauše da lana! Bihar apez kanpokuak predikatzera esperantza: orai zer egin behaut nik!". Juan tzen jaun erretorar errientaren gana, errientari erran tzion nola gertatu zen. Errientak erran zakon: "Jauna etzitela keša: horše bada zapatain bat, hura iduri duena. Izaitekotz ere nahi balu jarri hura den tokian bihar eguerdi artio erranen dakot". Jaun ertorak erran zion: "Nahi badu jarri, emanen diozkat hamar libera". Juan tzen erriente, erran zakon zapatain hari elizan ze gertatu zen. Zapatainak erran zion gogotik jarriko zela hamar liberaren irabazteko. Zapatainak erran zakon mazteari: "Bihar goizian goizik ban behar baitut elizako patroin hautsi den leku hartaat, tripa salda ezarran bihar goizian goizik. Behar dinat euerdi artio han egon". Biharamun goizian tripa zopaz ase zen, herze bat jan ziin, hain ondotik botoila bat arno edan zuen eta juan tzen elizarat. Jarri zuten patroina zen lekuan. Goizian lehenbiziko mezan jendia estronatu zen bizia zela. Hola lehenbiziko meza erran eta ban tzen populia etšeat. Gero meza nausian jin tzen apez kanpokoa predikatzera. Orduko zapataaina pantalon zintura lachatuik jarria zen. Apheza predikatzen ari zelarik eskapatzen zaiko pantalon išterrak beheiti kaka. Jauzi egiten du aldare aitzinera, juaiten da mazteen artetik barna kanporat mazte hek oro zikintzen zituela. Arrapatzen du kanpoko bortara denian herriko ašuranta, erten dako: "Hail hemendik etšerat, zikin tzarra!".

XXV. Erran zakon gizonak maztiari: "Katalin! Gure asto hau giri un. Eun ereman nun Eñauteneko mandoaina estalararaztera", "Mandoak estalaazten tia astuak?", "Bai, eiten baitu eta ezpeitu, aski un eremaitia. Alderdi huntan den animaleik ederrena un hura. Ahal badu heldu den

astokumia hartaik behainau ta gero han estalaazi eta barnian atšikan berze auzo hotako asto tšar horiik harrapatu gabe". Gero juan tzen Katalin bere astoaekin Eñautenera. Ta ein ziin : "Hela!" Ta ein zakoten: "Nor da hor?". Eta erran zun: "Heldu niz astuekin ziin mandotik essalaaztera". Ta erran zeen Eñautenekok: "Ai ei! Katalin, gure mandoak eztu astoik estalaazten, eta gure gizonak erran daut hunat ekhartzeko. Eta ezpazinuten etšian ee mandoa, hemen uzteko ziin mandua jin artio. Hortaik behar ginüla hurran aldiko gure astokumia".

XXVI. Aldi at gertatu zen gizon bat hiltzera. Orduko bazitiin hiru emazte izanak, eta gizona hil tzelarik enterramenduan bazohazin haren gibeletik hiru mutšurdin nigir eta nigar. Jende guzia harrituia heen nigarra ikusi ta hea zertako egiten zuten hoinbertze nigar. Batek galdein zeen hea zertako egiten zuten hoinbertze nigar. Errepostüia eman zuten Gizon hori bezalakuak izan balira mundu huntako gizonak etzirela hek mutšurdin geldituko.

XXVII. Aldi bat juan tziren Donianeko kantonamenduko gizonak Astabizkarreko mendirat Espaňolekin behar baitzuten belharraz aziindendako tratu at egin, Donibaneko Salaarri meharra notaria bere kantonamenduko aitzindari guziekin. Ahezkotik jin zitzeen harat gizon bat heen errezebitzera. Salaarri meharrak eman zakon paper bat bere kondizioniak nola (nahi) zitiin leit zezan. Ahetzak hartu ziin eskuietan paperra eta buruz beheiti zarri ziin paperra eta erran zakon Salaarri meharrak: "Adiškidia, paper hori bertz alderat itzul azu leitzeko". Espaňolak erran zakon: "Jauna, gisa guzietara dakienak nola nahi leitzen du, Yes, jauna, eztia berze gizonik Ahezkoan zu bezik hunajiteko". Erraiten dako: "Bai jauna, Ahezkoan baituzu gizonak. Eta hekigorri tuzte gizonetara. Eta ni igorri nute zuetara".

XXVIII. Aldi at juan nintzen mendirat Pariseko mediku batekin ihizira. Etišolan ginaudelaikan su lotu zitzauzkun etišolan eta gero itzal egin nijn huraekin. Eta gero mediku horrek galdein zautan heia suiak zer ziin izena heskuaraz. T'erran nakon "suia" ziila izena. Eta gero galdein zautan hurak zer ziin izena. Erran nakon "hura". Eta gero galdein zautan harriak hea zer ziin izena. Eta erran nakon "harria". Ordurian erran zautan heskuarak eina zela a-tik, eta hiru hilaiten buruko heskuara ikasiko ziila guk bezala, eta etzela erten ahal a-rik erran gabe heskuaraz hitzik.

XXIX. Gizon batek behar zitiin ereman hogoi erregu. Manduan

sei erregu. Eta zaldian erregu erdi bat. Eta astuan gaitzuru bat. Uai pentsa zazu zunbat asto, eta zunbat zaldi eta zunbat mando ziren.

XXX. Churi da churi: ezta paperra. Gorri da gorri: ezta odola Bizarra badu eta eztakizuna, (Baatšuria).

XXXI. Herri batian baziren bi gizon, jaun erretora eta erriente elgarrentzat samur zi(r)enak. Jaun errientak nahi ziin baketu eta etzakienei zer pentsa haekin baketzeko. Jaun errienta hori juan tzen egun batez ihizira: ekarri zitiin bi epher jaun erretorain borthan pasatu behar baitzuen bere hek eskuan. Jaun erretora borthan zabilan promenan. Erraiten dako: "Egun un, jaun erretora". "Bai zuri ere, jaun erriente". —"Nundik heldu zira?". "Jauna, izan niz ihizin, hatšeman tut bi epher ederrak". Jaun erretorak erran zion; "Ikhuskizu". Hartu zituen eskuan eta erran zion: "Plazer bazine, jaun erretora, elgarrekin eguerdian bazkalduko dugu. Epher hok untsa prestaraziko dazkot mazteari". Jaun ertorak hitz eman zion, juanen tzela. Orduan jaun erriente juaiten duzu etserat eta erraiten dio mazteari: "Bi epher ederrak hatzeman tinat: behar tun hok untsa prestatu. Jaun erretora esperantza dinat bazkaitera". Mazteak erraiten dio: "Nola kharraazten duk elgarrekin samur eta?". Senharrak erraiten dio: "Banian berze zerbeiten atzemaitera horiekilako ahal duanetz". Juan tzen erriente berri zbere harma harturik. Mazteak prestatu zituen epher horiek ahal bezain untsa. Ta gero zarri zituen prestatu eta gainetik estalirik. Jin tzen jaun erretora euerdian bazkaitera. Jaun erriente ezpatzen oraino jina juan tzen jaun erretorai gieletat: "Jinen niz ištan paten buruan". Arte hortan mazte horrek botoila bat arno athera eta jan tzuen epherretarik baño. Oraino epaitzen aski satifatzen jan tzuen berze bigarren epherra eta botoila arnua ere hekin batian edan. Gero zarri zuen lehen bezala gainetik estalirik Jin tzen berri zerran bezala jaun erretora bazkaitera. Erran zion mazte haren: "Jaun erretora, ene senharrak hil gogo zitu. Hura sartzen denean baitzuen kostruma bat gani(b)etaren šorrošten hasteko. Sartu zelarik jaun erriente erran zakon: "Jin zirea, jaun erretora? Berehala bazkaltzen dugu". Eta erran bezala hasi zen ganietaren šorrošten. Jaun erretora lasterka athera zen kanporat. Eta gibeletik jaun errientak erran zakon: "Zato hunat, jaun erretora". Harele "zato" erranago eta hak etšeko alderat jauzi handiago. Erran zakon mazteari jaun errientak: "Eskapatu ziaan jaun erretora". Mazteak erran zion: "Bilha zak epher horiek ereman othe tuen". Errientak behatu eta epherrak eremanak. Orduan lehen baino samurrago gelditu ziren.

XXXII. Šuberotar bat ban zen Bayonaat. Bayonako karrika batean

zabilan bortha batí so, berze batí so. Sosik etzuen sakelan eta gosetua zen. Sarzen da maasina handi batean; han zagon šutik botiako nagusia, ari zen bere komisekin lanean; Nagusiak erraiten dio: "Ze plazer duzu, adiškidea?". "Jauna, zurekin nahi nuke egon iſtan pat". Saraazten du nagusiak salon ttipi batera. Galdatzen dioheia ze(r) plazer duen. Šuberotarrak erraiten dio: "Ene besua bezain handiko urre barra". "Zenbat pagatuko duzu?" Nagusiak erraiten dio: "Zaudet iſtan pat nik botiako lan undarrak egin artio. Cero elgarrekin bazkalduko gira eta orduan mintzatuiko gira afera hortaz". Jaun horrek botiako lana egin zueñeán galdegin zuen Šuberotarra bazkaitera. Bazkaldu ziren elgarrekin, bainan Šuberotarrak eztakon deusik aipatzen. Erran zakon jaun horrek: "Orai zure urre barra hortaz behar gira mintzatu". Šuberotarrak erran zion: "Eztut gero neurekin. Ukhaiten dudaneko ari niz". Ordian, lau ostiko iphurdiaren hegian eman eta iorri zuen kanporat.

XXXIII. Šuberotar bat juan tzen ifernuko borthara. Jo zuen ifernuko borthara. Athera zitzaikon Lucifer. Erran zion: "Ze galdatzen duzu, adiškidea?". "Barneat nahi nuke sartu". Erran zakon: "Šuberotar(r)ik eztugu errezebitzen. Eta borta zerratu zion. Gero juan tzen zeruko borthara eta han bortha jo ziin. Athera zitzaikon Jan Dona Petri eta galdegin zakon: "Zer nahi duzu?". "Ai jauna, barnerat nahi dut jin". "Ez, etzira aski garbi hemen sarzekeo". Hori erran eta, gibeleko aldetik eskapatu zitzaikon barneat. Gero nahi zuen athera kanpuat, bainan ezin atera kanporat Šuberotarra. Gero juan zen Jondane Petri Jinkoaren gana. Eta erran zioz: "A iauna! Šuberotar bat jin zaut zeruko borthara, nik bortha ideki eta erran diot eztela aski garbi hemen sartzeko, bainan gibeleko aldetik sartu zaut barnerat, eta eztezaket kanporat athera". Jinkuak erran zion: "Kanpoko aldetik jo zozu arrabita(r)ekin dantza jauzien airea, fitx aterako zauzu". Juan tzen Jondane Petri Jinkuak erran zion bezala, eta jo zakon kanpoko aldetik dantza jauzien airea. Orduan, "Ala Jinkua" egiten ziila at(h)era zen dantzan kanporat. Orduan Jan Done Petrik bortha hetsi zakon.

XXXIV. Aldi bat gizon bat eri zen, denbora puska handi batian. Ta gero juan zitzaikon herriko jaun ertorain ikustera, eta erran zakon: "E bien! Piarre, nola zira? Barnia arin duzia? ala phizo?". "Jauna, eztut ikusten". "Nola? ez ikusi ta re barnia nola uzun eztuzia ezautzen?". "Jauna, ikusten eztuan gauza eztut ezautzen". Apezak erten dako: "E bien Piarre! Ezkerreko zango hori berze hori bezala ibiltzen dea?". "Al ez cono, Jauna, nahi badu erabili, berze horrekin sortia zen". "E bien, Piarre, eta horriak oro hola direla orai pasatzian sartu niz zu

ikusi beharrez. Eta bazinekea, deusere lehenas huts einik edo hutsikan aphezai erran gabe duzunik?”. “Bai jauna, ba. Baitut bi huts handiš kuak. Eta orai ezin errepara”. Aphezak erten dako: “Nola, Piarre, ezin errepara?”. Aphezak erten dako: “Nik baut huts guzien errepaatzeko erremedjua”. “Geroztikan, jauna, gootikan errain dauzkizutene huts guziak. Betidanik izan dut usaia herriko ertorari bazko denboran bildots bat ederra igorzeko eta hora igorri ta jaun ertorak komitatu nindian bazkaitera eta harat bazkaitera juan behar nin goizian goizeko hiru oonetan Maztiak haur ukantau eta hora zela kausa ezin juan nintzan bazkaitera. Horra hus bat handia, bainan berze at badut handiagokua. Auzoko etše atian ezteiak baziuzten bi eunendako komitatua nintzan ezteitera. Eta gero maztiak erran zaan: “Aitu uzia, Piarre, barda ze gouan pasatu duan? “Zer pasatu uzu Dominica? Juan den ihautirian etzirea ohitzen, Piarre, gure launekin besta ein ta puskaat moskortuik nola jin zinen? Eta nahi badaazu plazer ein eztieta juan gabe ekarriko tut nik kostelet batzu ederrak eta hilen tut bi oilasko hoberenak, eta bat eguerdian eta berzia atsian janen tu, Piarre. Eta eztieta bezain untsa moldatuko zitut. Eta horra jauna orai nere bi huts handiak diren bezala. Eta orai zuk nahi balin baituzu errepaatu erran duzun bezala nik eztut berzeik galdeiten”. Jaun apeza gelditu zen goiti so bat ein eta išil išila. Hortan finitu da gure solasa.

XXXV. Aldi bat juan tzen mutiko at behien eremaitera larreat, iandia baitzen, iandetako harropekin elizaat jiteko prestazio zen. Eta behiak behar zitin ereman larreat, eta zubi batetik pasatzeko plazan fitiao juaiteko phasaazti zitiin huretik, eta bera heen gieletik pantalona goratuik espartinak eskian. Hurean pasatzen ai zelaik pantalona hurak hunkitu, eta pantalonain goititzeko espartinak pausatu zitiin hurain gainian. Eta gero espartinak hurak ereman beheiti eta gero heen gieletik lasterka zualaik erori eta dena busti. Gero etšeak jin: elizaat baiteko ezpaitziin berze harropak, aitain arropak hartu ta juan tzen elizat. Gio aitain harropak handiei baitzitii, bere launek ikusi zutelaik erran zakoten: “Nok josi dauzkik harropa horik?”. Eta muthilkua deusee erran gabe lasterka juan zitzeen etšeak.

XXXVI. Šantšo hori Donianeat heltzen zen ilhun onduan manda tuak kargaturik. Bortha batean bazagon aphez bat andre mutso batekin. Šantšo hetara arribatu zenian aphez horrek erran zion: “Heldu zireia, Šantšo?”. “Bai jauna, heldu naiz”. “Persu bat eman behar daukuzu”. Šantšok erran zion: “Bai jauna, Alegerarik pasatzen nintzen Doniuanen gau batez. Ez Frantzian, ez Espanian parerik eztuu aldartez, persu

bidaren parekatzeko Español mandazain batek". Apezak erran zion: "Emazu berze bat, Santšo. Hori eztuzu untsa eman". Bigarrenekuan eman zakon lehengo persuia unsa emana: "Bigarrenekua hobeki nahi duienak adituren du, nik erranen dut klaroki: ilhunduz geroz eztela propi apezak portan andrekin".

RONCEVAUX

XXXVII. Orai diila berrehun urte bazeñ komentu hortan berrooita hamar apez. Gero bazeñ mandazain bat Šantšo deitzen zena, koplari handi bat. Euerri gauian sortua zen Šantšo hori eta euerri eunian hil. Ibiltzen zen Iruñetik Donianeat mandazain mandokin. Orriaako apez horriik atheratzen zitzaitzkon promenan zabilzalarik ikusi zuten urrunagotik heldu zela. Egin zuten elgarrekin: "Šantšo, hantše heldu duk. Behar diago zerbeit irri egiteko pensatu". Hurrandu zelarik hetat Šantšo erran zakoten: "Heldu zieia, Šantšo?". "Bai iauna, heldu niz". "Zer berri ekartzen duzu Iruñetik?". "Eztut deus andirik, jauna". "Doniane alderat zoazi, Šantšo". "Bai jauna". — "Eginen daukuzia mandatu bat Donianeko Šerbašu botiatik? Behar daukuzu ekarri zaku baten bete puzker". "Bai iauna, karriko itut". Hiru edo lau urhats egin eta erran zeen: "Ze neurritakuak nahi tuzie zangua goratu?". Eta tarrat eginen zeien denak neurri hortakuak izanen dira.

XXXVIII. Etšeko jaun bat penatuia zen arras, bere etšeko aferez buru ezin einez. Juan zitzaiokon avoca batí galdeitera: "Etšean arras penatia niz. Nahi nuke zure ganik kontseilu on zerbeit". "Jauna, zer duzu aa?". "Holako zera. Ba iauna, baditut oligazione atzu. Eta hola eta khešatzen nute ta eztakit zeren". Avokatak erraiten dako: "Goizian hasi duzun lana etzazula finitu artio utz. Etšeko jauna hasten da ogi pikatzen avokatak errana hasi lana ez finitu gaa uzteko bazkaria utzik finitzen du. Harerauntsi batek emaiten du, hak errekolta barnerat, eta berze herriak kanpuan. Hek denak harerauntsiak šehatuiak (porroskatziak). Juaiten zaiko avocatari, "Jauna, zure kontseiliaz (u)ntsa baliatu niz. Baut berze bat handiagua". "Zer duzu aa?". "Ua, oo, eun guziez heldu zauzkit etšera; "karrak hunenberze, karrak hunenberze". "Ta kontratuzkuak dituzia?". "EZ iauna, ez Hunenberze kuntratuzkuak, hunenberze berbalekuak (berbalak deitzen da)". Avokatak erraiten dio: "Ho, o, gauza hori gauza handia da. Gosta behar da. Bainan einen duu berrehun lierakuat: gostako zaizu". Erreposta: "Berrehun liera bada berrehun libera". Avocatak erraiten dio: "Erreezu, bauzitia paperrik? Paperra du-

tenak paazkizu eta berziak ez". Jaunari egun guziez han paperra zutenak pagatu zitiin. Jauna kontent. Juan tzen avocata(r)en gana: "Esker mila, jauna: bigarren aldian untsa baliatu niz zure kontseiluaz. Esker mila. Adio, jauna: best aldiraino". Avocatak: "Ene berrehun llerakua?". "Bauzia paperra?".

XXXIX. Ferrando Lakozketa Gizon beharra. Herriko jaun ertora abilezia franko egiten ziin apheza herriari eta baliatzen. Ferrando familia pobria. Erraiten dio herriari: "Nik aphez hori inganatiko diak". Herriak ezetz, Ferrandok baietz. Egun batez, erraiten dio bazkal tenoria hurbil den tenorian andreari: "Haugi hola ta hola (hola ta hola. Nik hartiko dinat hestrango at (egur bat errešago da). Juan behar dinau hulako lekurat, eta seur hikene errana egiten badun jaun ertora atherako ziaun. Eginen duna?". "Ba ba, eginen diat". "Bon (emazu). Nik eurra goititzen dualaik hulako lekian ein niar (has hadi, hi, orruez). Andria orruaz. Ferrandok berriz ee eurra goiti. Andriak orro. Gero auzuha komediara jaun ertora ere ba. Jaun ertorak erraiten dio Ferrandori: "Ferrando, Ferrando, zer ari zira hola? Baketu behar duzu. Baketu behar duzu? Tšaute en etšeat bazkaitera". Maheian jartzen dira Ferrando eta jaun ertora, emaztea sukaldean bazkaria manaturik. Jaun ertorak bazkal aitzinek othoitza hasten du: "Aitaren eta Semiaren ta išpiritu sainduaren aitzinian: hala biz". Ferrandok harek bezala alegia egiten du: "Aitaren, izpiritu sainduari izenian, halabiz". Aphezak erraiten dio: "Ferrando, "semearen" eztuzu erran". Ez, bortan da. Batista! haugi, jaunak galdeitean nu, haugi". Horra ordian herriak ezin inganatu apheza Ferrandok inganatuya senhar emaztek eta semiak bazkari eder eina.

XL. Hihiztari famatu at, zabilalaik bere ihizikuan bere šakurrekin denbora luzia burian perdionak (munizioniak) akhaatu zitzakon ihiztariari. Erbi bat denboren burian lo zagola ohartu zen, perdionik ez. Eskuz lotzera ezin mentura, iratzarziaren beldurrez. Kontra bazuen kakametaat, dena geezi pikorra: ihiztarriak pikorrekin bildu, harma kargatzan du pikorrekin. Ta tiratzen dako erbiari burura lo daolarik.

Erbia azantza aitu dielaikan eta jauzika. Ondoko berze urtian leku berian ihiztari ura zabilalarik ihizin iratze artetik ikusten du zerbait ihizi han nehundik ezin ezagut zer ihizi den hura ezagutzen erbia zela. Eta buria kanbio, histariak ezagutu zin tiro e(g)in eta erbia hil eta bi gerezi (landare) beratzi (bederatz) zentimetra luze eginak ondoko urtian.